

## ZER EGITEN DA GAUR EGUN EUSKADIN DESBERDINTASUN-EGOERAK GAINDITZEKO?

### Arau-esparrua

1998ko ekainaz geroztik araudia garatu zuen Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-premia bereziei ekiteko. Egoera sozial txarrean dauden ikasleei eskaini beharreko artapena ere araudi horretan sartzen da, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE) eta 1995eko Ikastetxeetako Parte-hartze, Ebaluatze eta Zuzentze Legea baititu hark oinarri. Azken lege horrek honela definitzen ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak: “Eskolatze-prozesuaren zatiren batean, edo prozesu osoan, laguntza eta hezkuntza-artapen bereziak behar dituen, ezgaitasun fisikoak, psikikoak edo zentzumenei dagozkienak dituztelako edo egoera sozial zein kultural txarrean daudelako”.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskaini beharreko artapena arautzen duen Dekretua ere araudian dago, baita zenbait Agindu ere. Hasiera-hasieratik baztertzen du araudiak egoera txarrean diren ikasle horienganako artapena banakakoa izatea. 1998ko uztailaren 30eko Aginduak zehazten du nolakoa behar duen izan artapen horrek, “egoera sozial edo kultural txarrean dauden ikasleentzako hezkuntza-jarduera arautzen duena, baita eskolari egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleenganako esku-hartzea ere”.

Oro har, hainbat aukera positibo eskaintzen ditu araudiak, atal gehienak zehaztu gabe dauden eta horiek garatzeko deialdiak egin behar izan arren. Aurkezten diren helburuak eta jardute-printzipioak asmo onez beteak daude, noiz gauzatuko zain.

Orokorrean, positiboak dira planteamenduak hezkuntza-jarduera global eta integratzaileari dagokionez, aberastu egiten baitute ikasketa-plana, familien eta gizartearen parte-hartzea eta harremana bultzatzen dituzte eta, azkenik, Derrigorrezko Hezkuntzaren helburuekin bat datozen proiektuen bidez planteatzen dutelako erantzunaren garapena ikasle guztientzat –egoera okerrean daudenentzat batik bat–, eta behar diren baliabide eta metodologia- zein antolamendu-aldaketak erabiltzeko prest direlako.

Ekimen Orokorreko Proiektuak eratzea proposatzen da gabeziadun inguruneetako ikastetxeetarako, ikastetxe horietako ikasle guztiei zuzenduak, eta ez bakarrik hezkuntza-premia bereziak dituztenei (prebentzio gisara), baita Hezkuntza Ekimen Espezifikoko Proiektuak (HEEP) ere. Azkena aipatu ditugunak bakarrik garatu dira, DBHko lehen ziklorako deialdien bidez, hezkuntza-premia bereziak dituzten – egoera sozial txarraren adierazle gehienetan– ikasleei eginak (eskola-atzerapen larria dutenei bereziki). Deialdi horiek jarduera integratzailea (artapena edo erantzuna ikasgelan bertan edo ohizko egituren bitartez gauzatzea) bultzatzen duten arren, eta nahiz eta DBHren helburuak ikasketa-plana ahalik eta gehien aberastuz landu, ez da baztertera uzten aparteko taldea osatzeko aukera denbora-epe luze batez eta eskola-ordutegiaren barruan. Ondorioz, joera baztertzailerik ari dira nabarmentzen hainbat tokitan.

Agindu horretan proposatzen den beste neurri bat (negatibotzat jotzen duguna, derrigorrezko eskolatzeari aurkakoa baita) honakoa da: Eskolatzeari Programa Osagarriena. Gainerako bideak agortuak direnean DBH ikastetxetik kanpoko unitate espezifikoetan egiteko aukera –astean hainbat orduz edo egun osoz denbora-epe jakin batez– eskaintzen dute Programa horiek. Gure ustez, hainbat ikasle baztertzeko atea zabalik uzten dute programa horiek, are gehiago ikasleen familiaren iritzia entzun bakarrik egiten bada (familiei ez zaie exijitzen programa onar dezaten).

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari irizpideak finkatzen ditu beste Agindu batek. Denak batera ageri direnez premia horiek, eta argiro bereizten ez denez hezkuntza-premia bereziak edukitzea eta ingurune pobretu/hondaturen bateko kide izatea (edo gutxiengo etnikoren batekoa), lekuren batzuetan legearen interpretazioa honela egiten da: Talde Multiprofesionalaren edo Eskolatzeari Batzorderen baten iritzia ezinbestekoa da gutxiengo etnikoren bateko edo bazterketa sozial egoeran dauden neska-mutilak eskolatzeko. Hainbat giza talderi ez zaie, horrenbestez, ikastetxea hautatzeko eskubidea errespetatzen, familiakoak ez diren beste jende batzuek egiten baitute hautaketa. Halaber, honelako edo halako taldeak problematikoak diren ustea hedatzen dute, haienganako irizpide negatiboak sorraraziz. Bestelako neurri diskriminatzaileak ere eragin ohi du horrek: ikasleak “banatzea”, besteak beste, integrazio hobeari aitzakiatan, batzuek besteak “berenganatzea” besterik izaten ez den arren gehienetan.

## Hainbat jarduera-mota

Zenbait ikaslek pairatzen duen desberdintasun-egoera ikusirik, hainbat erantzun eskaintzen ditu hezkuntza-sistemak. Horietako batzuk lehen aipatutako araudi-esparruari dagozkio; besteak, berriz, lehenagoko jardueri. Honako hiru multzo hauetan sailkatuko ditugu:

- a) Konpentsazio-ekimenak. Ikasleen gabeziei (defizitei) eskaintzen diete arreta nagusia eta, gehienetan, bereizleak edo baztertzailleak izan ohi dira.
- b) Horiez gain, badira ekimen orokorrak ere, gehienbat egoera txarrean dauden ikasleei aplikatu ohi zaizkienak. Zeharka bada ere, ikasle horien egoera hobetzeko baliagarri izan daitezke ekimen horiek.
- c) Duela ez asko hasi dira hezkuntza-berdintasuna (edo, beste hitz batzuek esanda, desberdintasuna gainditzea) helburu duten ekimenak bultzatzen, ikuspegi orokorrak eta integratzaileagoetatik.

Banan-banan egingo dugu jarraian ekimen edo jarduera horien deskribapena:

### ***a) Arreta nagusia gabeziei egiten dieten Konpentsazio Neurriak (bereizle eta baztertzailleak)***

- ◆ Ikasketa-plana goitik behera murrizten dute –ikasgaiak ere kentzen dira batzuetan–, “beharrezkoago” deritzen beste gai batzuk lantzeko: portaera, ohitura egokiak... *Eskolak ez badizkie eskaintzen neska-mutil horiei gizartean integratzeko eta lan egiteko behar dituzten trebakuntza-baliabideak, nekez aurkituko dituzte beste ingurune batzuetan. Beste ondorio bat: irakasten den apurra ere ez da ikasten, ez baita ikaskuntza-girorik sortzen. Gerorako itxaropenak, berriz, hala-moduzkoak izaten dira. Hona hemen nola garatzen den prozesu hori:*

- Ikasleei dagokienez, Curriculuma Norbanakoari Egokitzeko (CNE) planen bitartez. Ikasleak dauden zikloetako helburuak landu beharrean atzeragokoetakoak jorratzen dira bi urtez. *Beraz, epe luzera bederen, derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortzeari uko egiten zaio, nahiz eta ez eduki ikasleek horretarako inongo ezgaitasunik.*
- Taldeei dagokienez, Hezkuntza Ekimen Espezifikoko Proiektu (HEEP) batzuetan gertatzen da hori, zailtasunak edo arazoak dituzten ikasleak elkarrekin

jartzen baitituzte, baita euren ustezko premia eta gaitasunei “egokitutako” ikasketa-plan berezia prestatzen ere.

- Ikastetxeei dagokienez, honako hau egin ohi dute batzuek (inguruneari “egokitzearren” eta ikasleen gaitasuna gutxietsiz betiere): ikasgaiak murriztu eta sinplifikatu.

- ◆ Zailtasun gehien dituzten ikasleak bereiztea, tratamendu ezberdina emateko (aurreko atalean azaldutakoaren gisakoa): horra zer gerta daitekeen Bigarren Mailako HEEP batzuetan (deskribatuak ditugu lehendik) eskolatze osagarri programak direla-eta. Lehen Mailako Hezkuntzan, berriz, laguntza-talde batzuen eskutik etor liteke bereizketa, Pedagogia Terapeutikotik. *Aurrez aipatutako ondorio kaltegarriez gain, honakoa ere ekar lezake jokabide horrek: gatazkak ugaltzea zailtasunak abiapuntutzat harturik osatutako talde horretan eta, ondorioz, giza talde jakin batzuk gizarteratzeko oztopoak handitzea. Are larriagoa izaten da egoera baldin eta baztertutako gutxiengo etniko edo kulturalen bateko kide badira taldeko ikasle gehienak. Horrelakoetan, baztertutako ikasleak ez integratzeaz gain, horien taldeen inguruko aurreiritzi eta estereotipoek beren horretan iraun ohi dute.*

**b) *Ikasleen egoera hobetzen duten neurrietatik azpimarratzekoak dira honako hauek:***

- ◆ Eskolatze orokorra bi urtetik aurrera
- ◆ Udal Haur Eskolak 0-3 urte bitarteko haurrentzat (oraindik gutxiegi daude)
- ◆ Eskolako materialetarako eta jantokirako bekak. Ikastetxeen esku jarriz gero, ikasturtearen hasieratik eduki daiteke materiala.
- ◆ Haur Hezkuntzako, Lehen Mailako eta Bigarren Mailako ikastetxe ia guztietan eskola-jantokiak egotea.
- ◆ Irakasle laguntzaileak ikastetxe publiko guztietan: pedagogia terapeutikoa, aholkulari/orientatzailea, ordu libreak indargarri gisara...
- ◆ Lanorduak eskolaz kanpoko ekintzak prestatzen ematen dituzten irakasleak. Dohainik eskaini behar zaizkie ekintza horiek ikasle guztiek: liburutegiak, kirola, arte-hezkuntza, baratzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologia...

- ◆ Eusko Jaurilaritzako sailen eta udalen ekintza eta proiektuetarako diru-laguntzak: Hezkuntza, Osasuna, Kontsumoa, Ingurumena, Kultura...
  - Ikasleen osasuna hobetzeko proiektuak elikadurari, garbitasunari eta abarri dagokienez.
  - Ikasleen esperientziak aberasteko proiektuak: irteerak, eskola-baserrietan egonaldiak, kultur ekitaldietara joatea...
  - Ikasketak berritzeko eta aberasteko proiektuak: informatika, tailerrak, baratzea...
- ◆ Irakasleen prestakuntza
- ◆ Irakasle/talde-kopuru proportzio handia

***c) Neurri orokorrak desberdintasunak gainditzeko***

Hainbat neurri ari dira indarrean jartzen helburu jakin honekin: desberdintasunak gaindituko dituen hezkuntza bultzatzea. Hona hemen neurri aipagarrienak:

- ◆ Absentismoa ezabatzeko ekintza-taldeak. Gutxi daude oraindik, eta administrazioaren adar askoren baitakoak dira.
- ◆ Hezkuntza Ekimen Espezifikorako Proiektuak (HEEP) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan (DBHko Lehen Zikloan). Ikasleak banandu beharrean, baliabide gehiago jarri behar dira ikasgeletan (giza baliabideak badira, ikasgai batzuetarako bi irakasle ikasgela bakoitzeko). Proiektu horietan ez dira bazterrerazuzten Bigarren Hezkuntzako helburuak, kasu bakoitzean beharrezko diren Lehen Hezkuntzakoez gain. Egiten ari diren HEEP guztietatik, gutxi batzuk dira planteamendu horren arabera egiten direnak, baina nahiko ongi ari dira lortzen beren helburuak.
- ◆ Planteamendu horri lotutako gaien inguruko trebakuntza eskaintzea irakasleei: desberdintasunak, informatika, kultur arteko hezkuntza, metodologia aldaketa...
- ◆ Ikaskuntza Elkarteen proiektua: ekimen orokorreko proiektua da, komunitate osoan eragina duena eta helburutzat haxe duena: kalitatezko hezkuntza eskaintzea pertsona guztiei, gaur egungo beharrei egokituia, eta elkarbizitza hobetzea, horretarako kritika-eta elkarbizitza-gaitasuna hobetuz, berdintasunezko eta kultur

arteko euskal gizarte solidarioa eratzeko bidean. EAEko zazpi ikastetxetan ari da garatzen, eta hedatzen ari da pixkana, trebakuntza-prozesuen bitartez.

- ◆ MUSE programak (artearen bidez integrazio soziala lortzea dute helburu). EAEko lau ikastetxetan dago martxan.

### **Laburbilduz:**

Bultzada handia eman du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berrikuntzak.

Alabaina, Sailaren baitako departamendu guztien arteko ekimen instituzional koordinatuaren falta nabaritzen da (Berrikuntza, Ikuskaritza, Planifikazioa), baita beste Sail batzuekikoa ere, edota udal edo Aldundiekikoa, ekimen horien erabilera orokor eta positiboa ahalbidetuko lukeena, honako neurri hauek direla medio:

- ◆ Irakasleen trebakuntza eta sustapena
- ◆ Baliabideak jartzea
- ◆ Zerbitzuak eta erakundeak elkarrekin koordinatzea
- ◆ Integratzaileen diren ekimenen jarraipena, ebaluazioa eta orokortzea, betiere desberdintasunak gainditzeko helburuarekin bat baldin badatoz.

**Gaur egungo desberdintasun sozialek beren horretan dirauten bitartean, beharrezkoa izango da:**

- ◆ **Konpentsazio-ekimenak kentzea edo horien ordez beste batzuk erabiltzea**
- ◆ **Neurri orokorrei eustea**
- ◆ **Tinko bultzatzea desberdintasun horiek gainditzeko helburu dutenak.**

*LIJITOEKIN DIHARDUTEN EUSKADIKO IRAKASLEEN TALDEA (ADARRA)*